

**IX. LEGEGINTZALDIA**  
**2015-2019 LEGEALDIA**  
**UXUE BARKOS BERRUEZOr**  
**INBESTIDURA-HITZALDIA**  
**(GEROA BAI)**

**OSASUNA**

Osasuneko zerbitzu publikoei dagokienean, oinarri-oinarrian kontuan izan behar dugu osasuna funtsezko giza eskubidea dela. Eta hori diot, begi bistakoa izan behar lukeen arren, azken urteetan aurrekontuan bidegabeko murrizketak egitearen ondorioz, gure Erkidegoan eskubide horiek izan behar zituzten pertsonak zalantzan ikusi baitituzte.

Gainerako herritarren antzera, gure osasun zerbitzu publikoen prestazioaren kalitatean hondamen argia jasan dute.

Nafarroako osasuna, batez ere profesionalen lanari esker, Europako bikaintasunaren abangoardia izan da hamarkadetan zehar. Beraz, erreferentzia-marka hori berreskuratzea izango da gobernu berriaren helburu nagusia. Era horretan, profesional horien inplikazioa eta konpromisoa berreskuratu behar da, gehiago parte hartzeko eredu batean.

Baina gure ahaleginak eskuragarritasuna, berdintasuna eta kalitatea ere bermatu behar ditu osasun-arretan, Erkidego osoan. Eta, bereziki aipatu nahi ditut oso urrun aurkitzen diren edo joatea erraza ez den landa-guneak, lehen arretako zerbitzuak, zerbitzu etengabeak eta larrialdikoak zalantzan jarri baitira, legealdi honetan desagertu ez direnean.

Ezbairik gabe, osasun-prestazioen kalitateak proportzionaltasun zuzena du egiten den aurrekontu-inbertsioarekin. Eta gobernatzea baliabide horiek banatzerakoan lehenetsunak ezartzea da. Zuzentzea espero dudana gobernuak osasuna bermatzea lehenetsuneko helburua izango du, nafarrek eta gure erkidegoan bizi diren pertsona guztiek jasotzeko eskubidea duten osasuna izan dezaten.